

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA

**Udaleku irekiak eta
Gaztekantoi uztailean /10**

UNIBERTSITATEA

**70 ikaslek diplomak
jaso dituzte /11**

LEINTZ GATZAGA

**Elkarrizketak M25eko
hautagaiei /10**




www.aretxabaleta.com

Webgunea estreinatu du Udalak, besteak beste, adimistrazioa herritarrei gerturatzeko

JAIK: ASTEBURUKO JAIEI GAINBEGIRATUA /5 • KIROLAK: KIROL ANITZAK JARDUERA /8

ATREBENTZIAEZPADA/ Alkate barrixei ze eskatuko zeuskio herrirako?



ERIZ ZUMARRAGA
Langillie




ANA AZKOAGA
Langillie



AURELIO GONZÁLEZ
Langillie



KRISTINA AZKARATE
Langillie



ANTONIO DÍEZ
Jubilaue



NIEVES ARANA
Langillie

Zatiko Plan Partzialari aurka egittie, batez be. Plan horren aurka nau, erabat. Bestalde, euskera eta kultura aldetik lan egitten jarraiketie eskatuko neuskio udalbatzar barrixei.

Ez dakit... Biherbada, gaztiok etxebizitzakin daukugun arazoue konponketie, etxebizitzak oso garesti dauz-eta. Horretaz aparte, kulturari lan haundixague egittie be eskatuko neuskio.

Nik uste dot 12 eta 16 urte arteko neska-mutikuendako ez dauela ezer herri honetan. Horreindako zerbait jarri biherko leukie. Ez da samurre izengo, baiñe ahaleginddu daille.

Nik uste dot oin arte Aretxabaletako Udalak jarraitu dauen politikie egokixe izen dala. Hortan, iguel jarraiketako eskatuko neuskio alkate barrixei be. Lanien holaxe segiduteko.

Oingo agintaldiekuek oso ondo portau die jubilauekin eta hurrenguei be igual portetako eskatuko neuskie. Basotxo eta zaharren residentzia banaketie be ez litzake txarto egongo.

Kanpoko igerilekuek egittie eskatuko neuskio. Eguzkixe hartuaz egoteko ondo egongo litzake. Baita berdegune edo parke batzuk be. Oin momentuen horretzek falta diela uste dot.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ASTE BUKAERAKO APURKETEI Dirudienez, gure herrian zaborrendako edukiontzia botatzea herri kirol bihurtu da aste bukaeretan. Zapatu gauetan egin ohi den kirola da, antza; domeketan, berriz, zaborra jasotzen duen kamioiak paso egin eta lurrean dagoen edukiontzia ez du husten. Ondorioa? Zaborrez betetako astelehenak. Hortaz, txistuak egoera *kiratsu* horri. /A.L.

ETABARRUAN...

JAIK /05

Asteburuko jaiei errepasoa

Euskaren egunari eta Ojala-Zelaiko erromeriari gainbegiratu txikia argazki bidez.

WEBGUNEA /06

www.aretxabaleta.com

Aretxabaletako Udalak webgunea jarri du martxan. Herriko informazio guztia denon eskura.

KIROLAK /8-9

Aste bukaerako kirol ekitaldiak

Joan den asteburuan, hilaren 17an eta 18an, hainbat kirol ekitaldi egin zituzten herriko kirol elkarteek.

ASTEKODATUA

6

HAUTAGAI DAUDE HIRIGINTZA TEKNIKARI POSTURAKO

Udal hirigintza teknikari posturako sei lagun aurkeztu dira. Martitzenean amaitu zen, hain zuzen ere, hautagaien zerrenda osatzeko epea. Aukeraketa udalbatzar berriak egingo du.

BESTEKEESANA


Kirol Kontseilu Gorenak Gurpegiri azterketa berriak egiteko eskaera berandu eta modu txarrean heldu zaigu. Errespetu guztiarekin esan gura dut, harrizkoa dela holako eskaera bat komunikabide batek emandako informazioaren bitartez jakinaraztea, ez da ez ohikoa.

Gurpegik azterketan positiboa emateko arrazoia, metabolismoan aldaketa eragin diezaiokeen arazoa den ala ez jakiteko egin beharreko bigarren azterketak orain ez du guretako balorerik. Izan ere, horien emaitzak ezin diezaiokegu bere espedienteari gaineratu.

Edozelan, azterketa hori egitea onartzen badugu, bide ofizialek jakinaraziko diogu Kirol Kontseilu Gorenari.

ANDONI ZUBIZARRETA
'El Correo' /03-05-15

HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik



Aupa, Erreal!

Hauteskundeak egingo diren astean idaztea tokatzen zaizunean hauteskundeei buruz idaztera derrigortua zaudela ematen du. Hauteskundeak, egoera politikoa, etab... Hori roiloa, ez?

Beti gustatu izan zait politika: herri bat eraikitze eta antolatze era, ideia ezberdinak eta hauen arrazamenduak. Arrazamendu egokia duten pentsaera ezberdinetatik zerbait ikas daitekeela pentsatzen dutenetakoa naiz. Askotan, zuk sekula planteatu ere egingo ez zenituzkeen ideiak azaltzen dituzte, eta horrek, norbera aberastu egiten du.

Politikak ilusioaren eta hobetzeko gogoaren sinonimo izan beharko luke, zeure herriaren alde lan egiteko gogoaren sinonimo. Baina azkenaldian Euskal Herrian gertatzen ari diren zenbait gertakizunek harrizta eta behar bada pixka bat beldurtuta ere banaukate: euskaldunekin zerikusia duen

edozeren aurkako gertakizunak, gure kultura, euskara, iritzi askatasuna... dena da zilegi, horrek boto pila bat jasotzeko balio badu. Eta gertakizunaz gain, hitz egiteko era ere txunditzekoa da, ERRESPETU falta izugarria nabari da politikarien artean.

Hori adibidea ematen digutena herria eraiki eta gidatu nahi duten politikari batzuek. Eta guzti honen aurrean, bada, politika pikutara bidaltzeko gogo ematen du.

Baina harrigarriena, bizi garen estatu honetan, botere politikoa eta judizialak batera jokatzen dutela da, eta txarrean, hau normala balitz moduan jokatzen dutela... Pentsatu ere ez dut egin gura, oraindik zer gehiago egiteko gai diren...

Beno, etsipen egoera guzti honen aurrean, eta artikulua poztasun pixka batekin bukatzeko, (behintzat futbola gustatzen zaigunondako) oraingoz Erreal gelditzen zaigu: Aupa, Erreal!

"Betu gustatu izan zait politika: herri bat eraikitze eta antolatze era, ideia ezberdinak eta hauen arrazamenduak"

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Golo Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

ATREBENTZIAEZPADA/ Alkate barrixei ze eskatuko zeuskio herrirako?



ERIZ ZUMARRAGA
Langillie




ANA AZKOAGA
Langillie



AURELIO GONZÁLEZ
Langillie



KRISTINA AZKARATE
Langillie



ANTONIO DÍEZ
Jubilaue



NIEVES ARANA
Langillie

Zatiko Plan Partzialari aurka egittie, batez be. Plan horren aurka nau, erabat. Bestalde, euskera eta kultura aldetik lan egitten jarraiketie eskatuko neuskio udalbatzar barrixei.

Ez dakit... Biherbada, gaztiok etxebizitzakin daukugun arazoue konponketie, etxebizitzak oso garesti dauz-eta. Horretaz aparte, kulturari lan haundixague egittie be eskatuko neuskio.

Nik uste dot 12 eta 16 urte arteko neska-mutikuendako ez dauela ezer herri honetan. Horreindako zerbait jarri biherko leukie. Ez da samurre izengo, baiñe ahaleginddu daille.

Nik uste dot oin arte Aretxabaletako Udalak jarraitu dauen politikie egokixe izen dala. Hortan, iguel jarraiketako eskatuko neuskio alkate barrixei be. Lanien holaxe segiduteko.

Oingo agintaldiek oso ondo portau die jubilauekin eta hurrenguei be igual portetako eskatuko neuskie. Basotxo eta zaharren residentzia banaketie be ez litzake txarto egongo.

Kanpoko igerilekuek egittie eskatuko neuskio. Eguzkixe hartuaz egoteko ondo egongo litzake. Baita berdegune edo parke batzuk be. Oin momentuen horretzek falta diela uste dot.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ASTE BUKAERAKO APURKETEI Dirudienez, gure herrian zaborrendako edukiontzia botatzea herri kirol bihurtu da aste bukaeretan. Zapatu gauetan egin ohi den kirola da, antza; domeketan, berriz, zaborra jasotzen duen kamioiak paso egin eta lurrean dagoen edukiontzia ez du husten. Ondorioa? Zaborrez betetako astelehenak. Hortaz, txistuak egoera kiratsu horri. /A.L.

ETABARRUAN...

JAIK /05

Asteburuko jaiei errepasoa

Euskaren egunari eta Ojala-Zelaiko erromeriari gainbegiratu txikia argazki bidez.

WEBGUNEA /06

www.aretxabaleta.com

Aretxabaletako Udalak webgunea jarri du martxan. Herriko informazio guztia denon eskura.

KIROLAK /8-9

Aste bukaerako kirol ekitaldiak

Joan den asteburuan, hilaren 17an eta 18an, hainbat kirol ekitaldi egin zituzten herriko kirol elkarteek.

ASTEKODATUA

6

HAUTAGAI DAUDE HIRIGINTZA TEKNIKARI POSTURAKO

Udal hirigintza teknikari posturako sei lagun aurkeztu dira. Martitzenean amaitu zen, hain zuzen ere, hautagaien zerrenda osatzeko epea. Aukeraketa udalbatzar berriak egingo du.

BESTEKEKESANA

Kirol Kontseilu Gorenak Gurpegiri azterketa berriak egiteko eskaera berandu eta modu txarrean heldu zaigu. Errespetu guztiarekin esan gura dut, harrizkoa dela holako eskaera bat komunikabide batek emandako informazioaren bitartez jakinaraztea, ez da ez ohikoa.

Gurpegik azterketan positiboa emateko arrazoia, metabolismoan aldaketa eragin diezaiokeen arazoa den ala ez jakiteko egin beharreko bigarren azterketak orain ez du guretako balorerik. Izan ere, horien emaitzak ezin diezaiokegu bere espienteari gaineratu.

Edozelan, azterketa hori egitea onartzen badugu, bide ofizialetik jakinaraziko diegu Kirol Kontseilu Gorenari.

ANDONI ZUBIZARRETA
'El Correo'/03-05-15

HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik



Aupa, Erreal!

H auteskundeak egingo diren astean idaztea tokatzen zaizunean auteskundeei buruz idaztera derrigortua zaudela ematen du. Auteskundeak, egoera politikoa, etab... Hori roiloa, ez?

Beti gustatu izan zait politika: herri bat eraikitze eta antolatze era, ideia ezberdinak eta hauen arrazonamenduak. Arrazonamendu egokia duten pentsaera ezberdinetatik zerbait ikas daitekeela pentsatzen dutenetakoa naiz. Askotan, zuk sekula planteatu ere egingo ez zenukean ideiak azaltzen dituzte, eta horrek, norbera aberastu egiten du.

Politikak ilusioaren eta hobetzeko gogoaren sinonimo izan beharko luke, zeure herriaren alde lan egiteko gogoaren sinonimo. Baina azkenaldian Euskal Herrian gertatzen ari diren zenbait gertakizunek harrizta eta behar bada pixka bat beldurtuta ere banaukate: euskaldunekin zerikusia duen

edozeren aurkako gertakizunak, gure kultura, euskara, iritzi askatasuna... dena da zilegi, horrek boto pila bat jasotzeko balio badu. Eta gertakizunetaz gain, hitz egiteko era ere txunditzailea da, ERRESPETU falta izugarria nabari da politikarien artean.

“Beti gustatu izan zait politika: herri bat eraikitze eta antolatze era, ideia ezberdinak eta hauen arrazonamenduak”

Hori adibidea ematen digutena herria eraiki eta gidatu nahi duten politikari batzuek. Eta guzti honen aurrean, bada, politika pikutara bidaltzeko gogo ematen du.

Baina harrigarria, bizi garen estatu honetan, botere politikoa eta judizialak batera jokatzen dutela da, eta txarrena, hau normala balitz moduan jokatzen dutela... Pentsatu ere ez dut egin gura, oraindik zer gehiago egiteko gai diren...

Beno, etsipen egoera guzti honen aurrean, eta artikulua poztasun pixka batekin bukatzeko, (behintzat futbola gustatzen zaigundako) oraingoz Erreal gelditzen zaigu: Aupa, Erreal!

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxio ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi getokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Onati)	943 78 28 00

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 24
ITURRALDE. Mitarte 18... 943 79 27 22

DOMEKA, 25
ITURRALDE. Mitarte 18... 943 79 27 22

OHARRAK

GERRAN FUSILATUTAKOEN GAINEKO ERAKUSKETA
Maiatzaren 29ra arte dago zabalik, udaletxe zaharrea, 18:30etik 20:30era.

FUTBITO TXAPELKETA
Autodeterminazioaren aldeko golak futbito txapelketa antolatu du Aretxak zapatarako. 19:00etan mobilizazioak egingo dira.

'EGUNKARIA'-REN AKZIOAK
Egunkaria-ren aldeko akzioak daude salgai Loramendin.

KARTEL LEHIAKETA
Kurtzebarriko 75. urteurrena ospatzeko Kartel Lehiaketa antolatu du Murruxioak. *Kurtzebarriren 75. urteurrena irailak 14 jarri behar da* kartelean, eta ekainaren 23a baino lehen Murruxiora eroan.

ORAINDELA 9URTEARETXABALETAN

Elkarrik jaialdia egin zuen kirol etxean

Hirurehun herritar inguru batu ziren, 1994ko maiatzaren 20an kirol etxean, Elkarrik antolatutako jaialdian. Jon Sarasua, Andoni Egaña, Xabier Amuriza eta Mikel Mendizabal bertsolariak, Carcastilloko jota abeslariak eta Erramun Martikorena egon ziren bertan.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Eskekua"

Eskalea.
—Makiña bat eskeko ibiltzen zan sasoi baten etxeik etxe.



LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Idi orgaren karranka'

Honako hau Victor Hugo idazle ospetsuak 1843an Euskal Herriaren eginiko bidaiaren kontakizuna da. Lehenik Baiona aldera etorriko da, gero Donostia eta Pasaiara doa eta azkenik Iruñera. Victor Hugok Gerra Karlistaren osteko Euskal Herria aurkituko du. Liburu interesgarria da XIX. mendeko Euskal Herria ezagutzeko: jende xehearen bizimodua, janzkera, ohiturak, politika...



IDI ORGAREN KARRANKA

Victor Hugo
Elkarlanean, 2002
216 orrialde

Itzulpena Koldo Izagirrek egin du, lapurteraz; eta hasiera baten zenbait hitz ez ulertu arren, orokorrean testua ongi ulertzen da. Victor Hugo frantziarra izanik nolabaiteko autentikotasuna ematen dio honek.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Asier Ortiz de Mendibil
10ean, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Nagore Barrena
11n, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, lagun guztien partetik.



ARETXABALETA
Oier Aizpurua
12an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ARETXABALETA
Sarah Corres
14an, 3 urte. Berandu bada ere, zorionak, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Aitziber Eraña
15ean, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, aitaren eta amaren partetik.



ARETXABALETA
Leire San Vicente
16an, 15 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Maddiren eta Uxueren partetik.



ARETXABALETA
Ander Antxia
17an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Ruben Cabero
19an, 27 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Amaia Martínez
19an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Mikel Murillo
19an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Nerea Meabe
22an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, lagun guztien partetik.




ESKORIATZA
Juanjo Eraña
22an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Celia García
22an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Ander Mendikute
23an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Pako Oskoz
24an. Zorionak eta muxu bat, aitaita! Markel, Eñaut eta Gaizka.



ARETXABALETA
Alaitz Beltran de H.
28an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Eñaut, Manex eta etxekoak.

ANDRA
Aholkularitza

Fiskala
Kontablea
Juridiko/laborala

2002ko ondare eta errenta aitorpenenerako epea zabalik

Andra Mari Auzunea, 3. ARETXABALETA Tel. 943 79 29 26

JAIAK/ Zapatuan bertsolariak, gazta, sagardoa eta babarrunak izan ziren nagusi; domekan, oster, Gorritiren animaliak, paella eta ur-pistolak

Eguraldi bikaina eta giro paregabea bai Euskararen Egunean, bai Otala-Zelain ere

MIRARI ALTUBE

Eguraldi ona eskatu genuen aurreko aste bukaerako, eta bikaina egin zigun. Hortaz, ez zegoen aitzakiarik Euskararen Eguna eta Otala-Zelaiko erromeria ospatzeko, eta halaxe izan zen: herritarrek gustura hartu zuten parte eta paregabeko giroa sortu zuten.

Ez zen atsedenerako tarterik egon aurreko aste bukaeran. Hala, zapatu goizean bertsolariak izan ziren protagonista: batetik, Irazu eta Mendiluze eta bestetik, herriko gaztetxoak; baita gazta eta sagardoa ere; eguerdi partean babarrunak izan ziren eta arratsaldean umeendako dantzaldia.

OTALA-ZELAIN UR-PISTOLAK

Domekan, bestalde, herritar ugari igo ziren Otala-Zelaira. Gustura egin zuten jolas gaztetxoek Gorritiren animaliekin, eta nagusiek paella goxoak prestatu zituzten. Edozelan ere, protagonista nagusia ura eta ur-pistolak izan ziren; ume zein nagusi, busti-busti egin da bukatu zuten guztiek.



Umeendako zen dantzaldia, baina nagusiren batek edo bestek ere hartu zuen parte.



Paella onena Karlos Martinek egindakoa zela erabaki zuen epaimahaiak.

ATXABALTARRAK garelako badaukou zer esan...

E
s
a
n
b
a
i



Aretxa

Kepa Atxabaltara!!!

ATXABALTA / EZKERRA / AUTODETERMINAZIOA



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Arrixu edo Xabier?

Hauteskundiek gero eta hurrau dittugu, eta egixe esateko astelehena noiz etorriko zain nau, girue guztiz aldrebestute dau-eta. Hauteskundiez gain badagoz beste ekintza batzuk be herrixen, eta horretxeik aittetu gure nittuzke.

Batetik kirolak aittetu biher, notizia onak datoz eta bertatik. Gogor dabitz gaztieki futbolien; eskola arteko txapelketan, gipuzkoako txapelkunek izen zien Almenekuek. UDAko infantillek be igo egin daue maillaz eta omenalditue egin eutsien UDAko nagusixek domekan.

Bestetik martitzenien gerran fusilautekuen gaineko erakusketie zabaldu heuien; interesgarrix be gerrie bizi izen heuinen-dako, bai gainontzekuon-dako. Udaletxe zaharrien dau eguena arte. Martitzenien aurkeztu heuien Aretxabaletako webgunie be. Herriko informaziñue, udalakin harreman zuzena, herriko barrixek... dana, edo gehixena, egongo da bertan. Ordenagailluen www.aretxabaleta.net jarri besteik ez dau herrixen pasetan dien notizien barri eukittek. Baitte hauteskundietako emaitzek be.

Hauteskundiekin bukatu biher, ez dau erre-meixorik. Ez noie ni kinielarik egitten baiñe egoerie ikusitte erabakix be bin artien egongo da, Arrixu edo Xabier?

WEBGUNEA/ Udalaren informazioa, planoak, argazkiak, agenda, albisteak... Hemendik aurrera, dena herritarren esku

Aretxabaletaren gaineko informazio guztia egongo da 'www.aretxabaleta.com' helbidean

MIRARI ALTUBE

Martitzenean aurkeztu zuten udaletxean Aretxabaletako webgunea. LKS enpresak egin ditu aholkularitza lanak, Agora taldeak diseinua eta Goienak edukiak sartu ditu. Udalaren informazioa, albisteak, planoak, agenda... Hemendik aurrera guztia herritarren eskura.


Martitzenean aurkeztu zuten www.aretxabaleta.com webgunea. Gura baino beranduago izan dela adierazi zuen Anjel Bergaretxe alkateak, baina dagoeneko gertu dago.

ZAZPI LANGILEREN EKIMENA

Agora enpresak egin du webgunearen diseinua: diseinu berri-tzailea eta samur erabiltzekoa, Aitor Orobengoa diseinuaren arduradunaren iritiz. Digitalizazioa datorrenerako, gainera, gertu egongo da; hau da, Udalari etxetik eskaerak egiteko aukera izango dugu eta Udalaren erantzunak ere etxeko ordenagailuan jasoko ditugu laster.

HERRIAREN GAINEKO INFORMAZIOA

Informazio asko sartu dute webgunean: batetik, Udalaren informazioa: sail bakoitza nortzuk osa-




Alkateak eta LKS enpresak egin zuten Aretxabaletako webgunearen aurkezpena martitzenean.

tzen duten, herriko planoak eta mapak, argazkiak...; bestetik, egutegia eta berriak egongo dira. Azken horiek Goiena Komuni-

kazio Zerbitzuak enpresak eguneratuko ditu.

Diseinua egiterako orduan Aretxabaletako koloreak erabili

dituzte: urdina, larua eta gorria. Oraingoz euskaraz dago informazioa, baina beste hizkuntza batzuetara ere itzuliko dute.



Fusilatutakoak gogoan izateko erakusketa

Espainiako gerran fusilatutako debagoiendarrak gogora ekartzeko hainbat ekimen egin dituzte azken hilabeteotan ibarrean. Horren adibide da udaletxe zaharrian jarri duten erakusketa. Fusilatutakoen erretratuak eta datuak, gerrako aztarnak topatu dituzten lekuak, zer aurkitu duten... Hori eta gehiago dago ikusgai udaletxe zaharreko atarlean, eguena bitartean, 18:30etik 20:30era. /M.A.



Taberna Berri jatetxea

Durana, 26
ARETXABALETA
Tel.943 79 20 67

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Aretz


taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

IZOTZ
Taberna

Mitarte, 16
Tel.: 79 73 65
ARETXABALETA

M25 / ARETXABALETARAKO EGITASMOAK



ARETXA

Herriaren alde lan egiteko konpromisoa hartu eta bermatuko dute

► ETXEBIZITZA

Babes ofizialeko etxebizitzaren arloan politika aktiboa egingo lukete: batetik, 2-B sektorean egingo diren babes ofizialeko etxebizitzak daude; bestetik, Bedarretako 14 etxebizitza sozialak.

► INGURUMENA

Urkuluren aldeko apustua egingo lukete, eta Zatikako Lurralde Planari jarritako alegazioekin aurrera joko lukete. Tokiko Agenda 21ek emandako parametroei jarraituko lieke. Tranbiaren aldeko apustua egingo lukete, zirkulazioaren eta kutsaduraren arazoak konpontzeko.

► KULTURA

Kultura ekipamenduak bultzatuko lituzkete: batetik, kultura etxea egokitu; eta bestetik, areto multifuntzionala eraiki.

► EUSKARA

Euskararen normalizazio bidean jarraituko lukete, bai Udaleko barne funtzionamenduari dagokionez, bai herri mailan.



EAJ/EA

Aretxabaleta bete eta orekatuaren alde egingo dute lan Udaletik

► HEZKUNTZA

Aretxabaletarren aniztasuna kontuan izanda, herritarren hezkuntza eta formazioari, kultura eta giza beharrei erantzuna eman gura die. Herritarrek izan behar dute, gainera, beharrak bideratu behar dituztenak lankidetzaren bitartez.

► BIZI KALITATEA

Aretxabaleta bete eta orekatua gura dute; aretxabaletarrak herrian bizi daitezen, bertan lan egin eta aisialdirako baliabideak herrian aurki ditzaten; hau da, bizi gune izan dadin.

► GAZTERIA

Gazteek hainbat aisialdi baliabide eta alternatiba izan behar dituzte inguruan, eta horretarako partaidetza esparruak sortzea dute helburu, gazteak izan daitezen baliabide eta alternatiba eragile.

► INGURUMENA

Ingurune atseginak bultzatuko dituzte, herritarren ongizatean eragin zuzena dutelako; hortaz, herri garbia lortzea dute helburu.



PSE-EE

Onartu barik dagoen Lurzoruaren Legea onartzea premiazkoa dela diote

► HEZKUNTZA

0 eta 2 urte arteko umeendako heziketa proposatzen dute haurtzaindegietan, eta ez bakarrik zainketa. Ikastetxeak, bestalde, 12 orduz izatea irekita gura dute Gizarte Gune bezala erabiltzeko.

► ONGIZATEA

Nagusiendako tutoretzapeko etxebizitzak gura dituzte.

► ETXEBIZITZA

Egiten diren etxeetatik %70 babes ofizialekoak izatea proposatzen dute, eta etxebizitzak alokagai gazteendako, eta zaintzapekoak nagusiendako. Bestalde, Lurzoruaren Legea lehenbailehen onartu beharra ikusten dute, onartu barik dagoen komunitate bakarra da-eta Euskadi.

► INGURUMENA

Garapena jasangarria bilatuko dute argiaren, soinuaren, atmosferaren, uraren eta luraren kutsaduraren kontra eginda eta Agenda 21 aplikatuta.



PP

Ingurumenari minik egingo ez dion garapenaren aldeko apustua egingo dute

► BASERRIA

Baserriari bultzada emateko asmoa daukate: baserriarren bizi baldintzak hobetu, nekazari bizimodua modernizatu eta baserriarrei aukera gehiago eman.

► INGURUMENA

Ingurumenari dagokion politika oso garrantzitsua dela diote, eta ingurumenari minik egin barik garatu behar duela gizarteak. Hortaz, garapen jasangarriaren aldeko apustua egiten dute.

► KULTURA

Herritarren interes eta beharren arabera gestio-natuko dute kultura. Herriko elkarten lana bultzatzeko asmoa dute eta artista gazteei aukerak eman gura dizkiete.

► LANA

Lana sortzeko ahalegin berezia egingo dute; batez ere, prestakuntza txikia duten gazteek, emakumeek, minusbaliatuek eta 45 urtetik gorakoek lana izan dezaten.



IU-EB

Herritarrek hainbat gairen gaineko erabakia hartzeko eskubidea dutela diote

► INGURUMENA

Automobilek sortutako ingurumen eta giza arazoari irtenbidea topatu gura diote. Mugikortasunerako hitzarmena proposatuko dute herritarrek parte hartuko duten mahaia osatuta.

► ETXEBIZITZA

Etxebizitzaren arazoa konpontzeko egingo diren etxeetatik %50 babes ofizialekoak izatea proposatzen dute. Etxebizitzak hutsik egotea, bestalde, alferrikako gastua dela uste dute. Hortaz, Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren eta jabeen artean konponbidea aurkitzea dute helburu.

► HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Herritarrei erabakitzeko eskubidea eman gura diote: tokiko agendan eta eskolako agendan parte-hartzea bultzatu, aurrekontuetan parte hartzeko aukera eman...

► AISIALDIA

Herritik kanpo dauden aisialdi aukerak herrian zehar banatzeko aukera aztertu gura dute.



ARALAR

Aretxabaletatik Euskal Herri askeagoa, biziagoa eta alaiagoa egin gura dute

► NORTASUNEKO HERRIA

Euskara garatzeko plana diseinatu (euskalkia, etorkinak...) eta herri kultura berpiztu gura dute.

► HERRI PARTE-HARTZAILEA

Udala guztiona dela-eta herri kontsultak, gazte foroak, herritarren mahaia, eta holako parte-hartze mekanismoak jarri gura dituzte abian, eta herri elkarteei behar duten lekua eskaini.

► GARAPEN EREDU BERRIA

Ingurumena zaintzeak norabide aldaketa eskatzen duela diote: bizikletaz eta oinez ibiltzeko bideak jarri eta ohitura bultzatu, energia aurrezteko neurriak hartu, garraio kolektibo ona ezarri... Urkulu inguruko proiektua eztabaidatu, eta herri kontsulta egin beharra ikusten dute.

► BIZI KALITATE OSOAGOA

Etxebizitzaren arazoa konpontzeko bost proposamen dituzte. Herria hobetzeko herritarrei galde-tzeko asmoa dute (umeendako plaza estalia, kanpoko igerilekua...).

FUTBOLA

Kirol Anitzak jarduera jarri dute abian kirol etxean

Zerbitzu berriaren helburua da 18 urtetik gorakoendako kirol jarduerak antolatzea

AMAGOIA LASAGABASTER

Kirol etxeak beste zerbitzu bat jarri berri du abian: Kirol Anitzak jarduera, hain justu. 18 urtetik gorakoendako da eta zerbitzuaren helburua da kirol etxeak jarritako bitartekoei esker hainbat kirol egitea. Ez dute txapelketarik edo norgehiagokarik antolatuko.

Joan den egubakoitzean, hilaren 16an, egin zituzten Kirol Anitzak jarduerako lehenengo saioak. Oraingoz hamar lagunez osatutako taldetxo batek eman du izena. Horiak, Bixen Calzón irakaslearen laguntzarekin, jarri zuten

abian kirol etxeak eskaintako zerbitzu berria.

OHIKO KIROLAK

Kirol Anitzak jarduera 18 urtetik gorakoendako da. Kirol etxeke teknikari Asier Muxikaren esanetan, horien artean aurkitzen dira kirola egin gura baina horretarako bitartekorik edo lagunik ez dutenak. Hain justu ere, herritar horiendako abiarazi dute Kirol Anitzak zerbitzua. Kirol etxeak beharrezko instalazioak eta materialak jarriko dizkie eskura; baita irakaslea ere.

Ohiko kirolak egingo dituzte: besteak beste, futboleak, badmintonen, tenisean eta saski-

baloian ibiltzeko aukera izango dute. Edozelan ere, ez dute txapelketarik antolatuko. Asier Muxikaren iritziz, helburua ez da norgehiagoka sustatzea, kirola eginez ondo pasatzea baizik.

'AQUAGYM' ETA IGERIKETA IKASTAROAK


Aquagym edo igeriketa ikastaroa egin gura duenak kirol etxean du horretarako aukera: igeriketa ikastaroak 20 ordu iraungo du. Kirol etxeke bazkideek 30,90 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 41,20 euro; *aquagym* ikastaroa, berriz, lau saiotan emango dute. Kirol etxeke bazkideek 14 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 21.



Omenaldi bikaina egin zieten infantil mailako jokalariei gazteei

Joan den domekan, hilaren 18an, preferenteko UDA taldeak ohorezko pasilloa eginez omenaldi beroa egin zien infantil mailako jokalariei. Haiek, aurtan, ligan sekulako lana egin ostean Gipuzkoako txapeldun izan dira. UDA elkarteko zuzendari Bixente Etxeandiak, gainera, kopa eta kamiseta eman zien zelai erdian. Ikusleek, berriz, txalo zaparrada bikaina eskaini zieten gazteei. /A.L.

FOTOKIROLA



'Kyokushinkai' txapelketako irabazleak

Ikusle eta kirolari ugari egon ziren joan den zapatuan, hilaren 17an, kirol etxean egindako *Kyokushinkai* modalitateko lehen lehiaketan. Herriko eskolaz gain, Arrasateko Saioa eta Bergarako Giartzu karate elkarteek ere hartu zuten parte. /A.L.

FUTBOLA

Garaipenarekin esan zion agur Ibarra futbol zelaiari preferenteko UDA taldeak

Aurtengo liga heldu da azken txanpara. Joan den domekan jokatu zuen, hain zuzen ere, preferenteko UDA taldeak etxeke azken partidua. Elgoibarko taldearen aurka neurtu zituen indarrak eta UDAk irabazi egin zuen (2-1). Oraingo domekan, berriz, ligako azken partidua jokatu du UDAk Bergararen aurka.

Bittor Muxikaren mutilek makal hasi zuten liga. Hala ere, bigarren itzulian ederto ibili dira eta 37 puntu lortu dituzte. Hala, UDAk ligako sailkapenaren erdialdean amaituko du aurtengo denboraldia.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Bergara-UDA
Preferenteak.
Zapatua. 16:30. Bergara.
UDA/Almen-Texas
Bigarren mailako gazteak.
Zapatua. 16:30. Ibarra.

PILOTA

Herri Arteko Txapelketa
Bergara-Aretxab.
Hiru partiduko: kadeteak, gazteak eta nagusiak.
Egubakoitza. 19:30. Bergarako pilotalekuan.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 2 Elgoibar 0
Preferentea.
UDA 6 Beti ona 0
Big. mail. erregio. Igoera fasea.
UDA 3 Aloña 3
Gazteen Ohorezko Liga.
Eguzki 3 UDA/Almen 1
Big. mail. gazteak. Igoera fasea.
UDA 0 Arrasate 3
Lehenengo mailako kadeteak.

PILOTA

DEBA ARROKO TXAPELKETA
Aretxab. 4 Bergara 22
Kadeteak.
Aretxab. 22 Bergara 12
Gazteak.
Aretxab. 22 Bergara 16
Nagusiak.



Herriko plaza z/g ARETXABALETA

Mortin
erloju-denda


Bere bezeroen
zerbitzura

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA



Hirusta
Iatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



LURRINDEGIA
OPARI DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

FUTBOLA

Torrebaso taldea da Gipuzkoako eskola arteko futboleko txapeldun

Orain Euskadiko Txapelketa jokatzen dabil eta nafarren kontra jokatuko du zapatuan

MIRARI ALTUBE

Gipuzkoako txapeldun izendatu duten Almengo infantil mailako lehenengo taldea da. Vicente Calzón eta Joxe Mari Iturbe entrenatzaileen gidaritzapean ailegatu dira txapeldun izatera Torrebaso taldeko 15 mutikoak. Orain Euskadiko Txapelketa jokatzen dabilta.

Almen Ikastetxeko 12 mutikok eta Kurtzebarri Eskolako hiruk osatzen dute Torrebaso taldea. Eskola arteko infantil mailako Gipuzkoako Txapelketa jokatu berri dute, eta Alegiako taldeari irabazi ostean Gipuzkoako txapeldun dira.

EUSKADIKO TXAPELKETA

Lehenengo, ibarreko taldeei irabazi zieten 13 urte dituzten Torrebaso taldeko mutikoek. Gero Zestoara joan ziren finalurrekoa jokatzerako, eta, bukatzeko, finala Donostian jokatu zuten maiatzaren 10ean. Alegiako taldea izan zuten aurrez aurre: bana egin zuten, eta penalti jaurtiketetan Torrebaso nagusitu zen.

Orain Euskadiko Txapelketa



Torrebaso taldeko futbolariak, pozik, lortu dituzten dominekin eta koparekin.

jokatzen hasi dira. Joan den aste bukaeran Arabako eta Bizkaiko txapeldunak izan zituzten aurrez aurre, eta galdu egin zituzten partidua biak. Izan ere, aretxabaletarrak txapelketako gazteenak dira.

Zapatuan, bestalde, nafarrak izango dituzte aurkari. Oso pozik dago Torrebaso taldea, eta, bide batez, eskerrak eman gura dizkie Vicente Calzón eta Joxe Mari Iturbe entrenatzaileei.



Akitaniarrak nagusitu ziren memorialean

Bero handiarekin egin zuten joan den domekan, hilaren 18an, Pedro Guenetxea Memoriale. Eta podiumeko lehenengo bi postuetan Akitaniatik etorritako txirrindulariak egon ziren. Aretxabaletarren artean, Antxo Anduaga bosgarren sartu zen. /A.L.

PILOTA

Garaipenarekin hasi du Aretxabaletako pilota taldeak Herri Arteko Pilota Txapelketa

Ondo hasi dute Aretxabaletako pilotariak Herri Arteko Pilota Txapelketa. Joan den egubakoitzean, hilaren 16an, Bergarako pilota taldearen aurka jokatu zuten, eta, jokatutako hiru partiduetatik bi irabazi eta gero, Aretxabaletako taldearena izan zen garaipena. Buelto partidua gaur, egubakoitza, jokatuko dute Bergarako Udal Pilotalekuan. Aretxabaletarrek jokoan dauden hiru partidua irabaztea dute helburu. Lehen partidua 19:30ean hasiko da.

Aretxabaletatik Euskal Herria

Behetik gora, ezkerretik eta bakean

Bada konpontzeko garaia

Lizarra-Garazi da bidea

Elkarrizketa, Suetena, Autodeterminazioa

zure botoa

ARETXABALETAKO

ARALAR



Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 23a / 125. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Udaleku Irekiak eta Gaztekantoi izango dituzte aukeran herriko gazteek uztailean

AMAGOIA LASAGABASTER

Aurten ere Gaztekantoi eta Udaleku Irekiak antolatu ditu Udaleku Kultura Sailak uztailean. Baterako zein besterako egitarau polita gertatu dute, gainera. Hala, herriko gazte eta umeek aukera izango dute uztaileko egunak lagunekin jolas eginez pasatzeko.

Oporrak hartzeko oraindik goitxo den arren, gaztetxoek dagoneko azken eskola egunak bizi dituzte. Ekainaren erdialdetik aurrera, gehienek egun osoa izango dute jolas eginez kalean ibiltzeko. Horregatik, Udalak, beste behin ere, abian jarri ditu Gaztekantoi eta Udaleku Irekiak. Datoren egubakoitzean, hilaren 30ean, amaituko da, hain justu, bi horietan izena emateko epea.

UDALEKU IREKIAK

Alde batetik, Udaleku Irekiak uztailearen 7an (astelehena) hasiko dira: astegunetan, goizean 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 15:00etatik 17:00etara jardungo dute. Egunero hainbat ekitaldi egingo dituzte, hala nola: Kirol Olinpiadak, San Fermin egu-



ARTXIBOA

Udaleku Kultura Sailak gertu ditu, aurten ere, uztaileko Udaleku Irekien eta Gaztekantoinen egitarauak.

neko ospakizunak eta Altxorraren Bila jolasa antolatu dituzte, umen gozamenerako. Udaleku Irekietan 3 eta 8 urte arteko umeak ibiliko dira.

GAZTEKANTOI


Horren ume ez direnendako, berriz, Gaztekantoi aterpetxeetan egonaldiak eskaintzen ditu. Astebeteko egonaldiak izango

dira: bata Orion egingo dute eta bestea, Garaion. Hori bai, bietan ekitaldi ugari antolatu dituzte. Informazio zabalagoa gura izanez gero, kultura etxera jo dezakezue.

Maiatzaren 30ean amaituko da Udaleku Irekietan eta Gaztekantoin izena emateko epea

Udaleku Irekietan Olinpiadak eta San Ferminetako ospakizunak izango dituzte, besteak beste

Gaztekantoi Orion eta Garaioako aterpetxeetan egonaldiak eskaintzen ditu



Nutrizioaren gainekoak ikasten herritarrak

Mireia Alberdi nutrizionista irakasle zutela, astelehenean, hilaren 19an, hasi ziren 14 herritar nutrizioaren gaineko ikastaroa egiten. Eta jakien gaineko gauza interesgarri asko ikasi dituztela adierazi digute, gainera. Lau egunez, elikaduraren bidez gaixotasunen prebentzioa eta etxetik kanpo zelan lortu ahalik eta egokien jatea ikasi eta azkenaldiko produktu berrien gaineko informazioa jaso dute, besteak beste. Azkeneko egunean, berriz, astebeterako dieta egoki bat prestatu zuten. /A.G.

LABUR

EA/EAJ koalizioak asteen egin du aurkezpena

Eguaztenean, hilaren 21ean, egin zuen EA/EAJ koalizioak hauteskundeetarako Eskoriatzako hautagaien aurkezpena. Hurrengo lau urteotan landuko dituzten egitasmoen berri ere eman zuten udal txeko areto nagusian egin zuten ekitaldian. Iñaki Galdos eta Juan Mari Juaristi alderdi bietako Gipuzkoako exekutibako buruak egon ziren, eta Juan Karlos Bengoa alkategaia egin zuen lan programaren aurkezpena.

TELEFONJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

URPEKO MURGILKETA IKASTAROA

Eskoriatzako kiroldegia antolatuta, maiatzaren 26tik ekainaren 6a bitartean murgilketa ikastaroa egongo da igerilekuan. Zati bi izango ditu ikastaroak: teorikoa eta praktikoa. Ekainean itsasora irteerak egingo dituzte. Izena kiroldegian eman behar da. Bazkideek 330 euro eta bazkide ez direnek 360 euro ordaindu beharko dituzte.

HELDUENDAKO IPUIN KONTAKETA

Tim eta Cas ipuin kontalari helduendako ipuinak kontatuko dituzte HUHEZIn, maiatzaren 30ean, 22:30ean.

AXTROKIRENAGENDA

AMARAUNEN KONTZERTUA

Maiatzaren 16an Amaraunen eskaini zuen kontzertuan jende ugari batu zen gazte txean. Kontzertu interesgarria eta berezia izan zela adierazi gura izan du Axtrokik.

Realeko kide Mikel Etxarri etorri zen diplomak ematera

MIRARI ALTUBE


Joan den egubakoitzean, Humanitate eta Enpresa ikasketak egin dituzten ikasleei diplomak banatu zizkieten. Hirugarren promozioiko 70 ikaslek jaso zituzten diplomak, Mikel Etxarri Realeko talde teknikoko kidearen eskutik. Tartean hiru eskoriatzar zeuden.

Realeko kirol zuzendari Roberto Olabe zen etortzekoa diplomak banatzera, baina haren ordez Mikel Etxarrik banatu zizkien Humanitate eta Enpresa ikasketak egin dituzten 70 ikasleei.

CURRICULUMAK ENPRESETARA

Lau urteren ostean ikasketak bukatzea lortu duten 70 ikasleetatik gehienak debagoiendarrak dira: %31,5. Eta tartean hiru eskoriatzar daude. Unibertsitateak, gainera, ikasle guztien curriculumak dituen 1.000 aldizkari argitaratu ditu Euskal Herriko enpresetan banatzeko.

Ekitaldian Humanitate eta Enpresa ikasketen zuzendari Juanjo Otaño, Realeko talde teknikoko kide Mikel Etxarri,



Humanitate eta Enpresako 70 ikaslek jaso zituzten diplomak.

HUHEZIn dekanok Jose Antonio Mendikute eta MUko errektore Iñaxio Oliveri egon ziren. Mikel Etxarrik, gainera, kirola eta enpresaren kudeaketaren gainean egin zuen berba.

Horren haritik aipatu behar da datorren ikasturtean Mondragon Unibertsitateak Irakasle ikasketen barruan Heziketa Fisikoko espezialitatea jarri gura duela.

TXUTXUMUTXUA



Kirola nagusi Almen Egunean

Joan den egubakoitzean, maiatzaren 16an, ospatu zuten Almen guneko jaia. Joan den aste osoan izan zuten Kultura Astearen barruan kokatu zuten aurtengo Almen Eguna. Jolasak, ipuinak, antzerkiak eta, batez ere, kirola izan ziren nagusi ikasleen artean. Torrebasko Igoeran gaztetxo askok hartu zuten parte. Eguraldia ez zuten lagun izan, baina jende asko batu zen txirrindulariak animatzeko. Oso maila ona erakutsi zuten ziklistek.

LABUR

Ezeiza Eskolako Guraso Elkartearen irteera bihar

Bihar, zapatua, Ezeiza Ikastetxeko Guraso Elkarteak antolatuta, ikasleek eta haien gurasoek irteera egingo dute Hondarribiko aterpetxera. Hondarribira heldu, aterpea bisitatu, eta gero euskal jolasak egingo dituzte: zaku lasterketa, txapel jaurtiketa, pilota, eta beste. Bidaiaren helburua umeekin euskaraz jolastea da, eta gurasoen eta umeen arteko harremana euskaraz bultzatzea. Dagoeneko 110 gurasok eman dute Hondarribira joateko izena.

Mankomunitateak zerbitzu berria jarriko du abian

Debagoieneko Mankomunitateak hondakinak batzeko sistema berria jarriko du abian ekainean. Hain zuzen ere, Puntu Berde Mugikorra izeneko ibilgailu baten bitartez beteko da zerbitzu hori. Ibilgailu horrek etxeetako landare-olio erabilia, pilak, erradiografiak eta mota horretako hondakin arriskutsuak batuko ditu. Puntu Berde Mugikorra hilean behin egongo da herrian, lau orduz. Bilketa eguna oraindik ez du zehaztu Mankomunitateak.

Tortolis ludoteka itxita egon da aste osoan

Astelehena geroztik, eta aste osoan zehar, itxita egon da Tortolis ludoteka. Hezetasun arazoak izan dituzte azken aldia Gorosarriko garaje batzuetan. Badirudi ura sartu dela garajeotara eta Tortolis ludotekako komunitatik sartu delakoan daude arduradunak. Arazoa zein den jakin, eta konpondu beharrekokoak konpontzeko, itxita egon da ludoteka. Dena dela, datorren astelehenetik aurrera zerbitzua zabalik egongo da.

EDURNE

ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA

Aranburuzabala 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA

Elektroterapia.

TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

LAGUNAK OASTALEKU

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

MIRENTXU TABERNA

Kafe goxoa hartzeko

Tel.: 943 71 41 67

ERRETRATUZAHARRA

Maiatza:
jaunartzeen
hilabetea

Beti izan ei da maiatza jaunartze-
ak egiteko hilabete egokia.
1976an jaiotako ondoko taldeko
gaztetxoek ere maiatzean egin
zuten lehenengo jaunartzea, 1985eko
maiatzaren 26an, hain zuzen ere. Or-
duan bi talde egoten ziren jaunartzea
egiteko: euskaraz egiten zutenak eta
gaztelaniaz egiten zutenak. Argazkiko
35 neska-mutilok euskaraz egin zuten
jaunartzea, San Pedro elizan.

Argazkian ageri diren lagun batzuek
esan digutenez, guraso asko urduri zeu-
den egun hartan; neska-mutilok, berriz,
ilusioz gainezka. Iban Pagaldai, Asier E-
rrasti, Nora Moya eta Vanessa González
lehengusuak izanik, familia osoa batu
zen Gatzagako Marisanean jaunartzea
ospatzeko. Erlojuak jaso ei zituzten opa-
ri. Egun polita izan zela esan digu Vane-
ssak.

Orain dela astebete ezkondu zen eta,
gainera, domekan, hilaren 25ean, udal
hauteskundeetarako hautagai izango
den Maider Otamendi ere argazkiaren
erdialdean ageri da. Hura da argazkiko
erlean hauteskundeetara aurkeztuko



den bakarra.

Goiko ilaran, ezkerretik hasita, hona-
koak daude: Ekaitz eta Aitor Galdos
anaiak, Igor Lazkano, Iker Zubia,
Gaizka Kortazar, Iban Pagaldai, Asier E-
rrasti, Iñigo Urrutia, Edorta Roitegi, Iñi-
go Eraña eta ezezaguna.

Bigarren ilaran, ezkerretik hasita,

hauek ageri dira: Nerea Martínez de la
Hidalga, Eider Perea, Ixone Iregi, Nora
Moya, Naiara Altuna, Alex Masparrote,
Iñigo Pagaldai, Haritz Segura, Iñigo
Eraña eta Mikel Zubizarreta.

Hirugarren ilaran: Ohiana Lazkano,
Vanessa González arrasatearra, Olatz
Arrese, Nagore Arana, Idoia López, Mai-

der Otamendi, Maider Herce, Larraitz
Uribesalgo, Anaitz Lazkano, Karmele Pa-
galdai eta Igor Gorosarri. Aurreko
ilaran, berriz, Iban Pagaldai, Aitor M. de
la Hidalga eta Jon Pagaldai ageri dira.

Argazkia: Ainhoa Segura

Maiatzak 25 ien eskoitzarrok Kontzejupekin



Herritarrona da hitza...
eta erabakia !!

kontzejupe

M25 / ESKORIATZARAKO EGITASMOAK



KONTZEJUPE

Herri kulturean oinarritutako herri euskalduna aldarrikatu

► HERRI PARTE-HARTZAILEA

Herri kulturean oinarritutako herri euskalduna, anitza eta dinamikoa gura luke Kontzejupek. Aniztasunarekiko errespetua, hezkidetzeta eta jarrera kritikoa bultzatu eta Udalean herritarren proposamenak jasotzeko bideak eraiki gura lituzke.

► HIRIGINTZA

Auzoek dituzten beharren arabera lan egin. Santa Marinako proiektua bultzatu. Garapen jasangarria bultzatu, arauetan ingurumen irizpideak gehituz. Garrantzia eman gura lieke energia berriztatzailei, berdeguneei eta makroproiektuen jarraipena egin.

► ONGIZATEA

Oinarritzko laguntzak, zerbitzuak eta informazioa herritar guztien eskura jarri gura lituzke. Aukera berdintasuna aldarrikatu, emakume, etorkin, gutxitu fisiko eta psikiko, hirugarren adineko eta arrisku egoeran dauden herritarrendako. Enpleguan, lan segurtasuna eta arriskuen prebentzioaren alde lan egin.



EA-EAJ

Bakean oinarrituta, talde politikoaren arteko lankidetzeta bultzatzea dute helburu

► HIRIGINTZA ETA ZERBITZUAK

Etxebizitza sozialak bultzatu, eta premia daukaten auzoak urbanizatu eta saneamendua egin. Kanposantuaren birmoldaketa egin. Bidegorria egokitu herrian jarraipena izan dezan. Tranbia herriraino irits dadin indarra egin.

► KULTURA, EUSKARA, HEZKUNTZA

Erabilera anitzeko gela egokitu. Euskararen erabilera areagotzeko ekintzak bultzatu. 0 eta 3 urte arteko heziketa garatzeko hitzarmena egin Eusko Jaurlaritzarekin. Mondragon Unibertsitatearen eta Udalaren arteko harremana bultzatu.

► GIZARTE ZERBITZUAK ETA ENPLEGUA

Zaharren egoitzaren osagarri, tutoretzapeko etxebizitzak ezarri. Gaixo psikikoendako etxebizitzak egokitu. Eguneko zentroa garatu eta bultzatu. Etxez etxeko laguntza zerbitzua birplanteatu. Nagusiendako kirol eta kultura eskaintza zabaldu. Drogamenpekotasunaren prebentziorako jarduerak antolatu. Herriko gobernuz kanpoko erakundeek lagundu. Enpleguak sortzea bultzatu.



IU-EB

Herritarrek herriko kudeaketan parte-hartze zuzena izatea gura du EBk

► HERRITARREN PARTAIDETZA

Herritarrei informazio zuzena eman gura die eta herri kudeaketan herritarren parte-hartze handiagoa bultzatu gura du.

► HIRIGINTZA

Dorleta eta Santa Ana auzoetako urbanizazioak egitea ditu helburuen artean Ezker Batuak. Bainatu ahal izateko ibai inguruak garbitu gura ditu.

► HEZKUNTZA

Sare publikoan kokatutako 0 eta 3 urte arteko Haur Hezkuntzako doako eskola du helburu.

► ZERBITZUAK

Eskoriatza auzoekin eta Leintz Gatzagarekin lotuko duen autobus zerbitzu publikoa jarri. Udalak azkeneko urteotan pribatizatu dituen zerbitzuak publiko bihurtu: lorategien mantenua, udal erakuntzen garbiketa eta kiroldegia kudeaketa, besteak beste. Udaltzainen kopurua handitu gura du EBk eta herritar guztiendako zerbitzua eskainiko duen osasun etxe berria eraiki gura du.



PSE-EE

Aniztasunean oinarrituta, herriaren berreraikuntza du helburu PSE-EEK

► ETXEBIZITZA

Babes ofizialeko etxebizitzak -saldu eta alokatzeko- bultzatu gura ditu herrian PSE-EEK. Etxebizitzaren zati handi bat gazteei zuzenduko die, familia kargak dituzten emakumeak eta baliabide urriak dituzten herritarrak ahaztu barik.

► ONGIZATEA

Nagusiendako tutoretzapeko etxebizitzak eta egoitzak gura ditu alderdiak.

► HEZKUNTZA

Kalitatezko hezkuntza eskaintzea dute helburu; 0 eta 3 urte arteko umeak eskolaratzeko aukera eman, lanbide hastapena eta etengabeko heziketa eskaini eta Musika Eskola indartu.

► INGURUMENA

Garapen jasangarria bilatuko dute, Agenda 21 bultzatuta. Udaletik egiten diren ekintzak ekologiarekin errespetagarriak izango dira. Garraiobideen arazoa konpondu eta tranbia ezartzea proposatzen dute.



PP

Garapen jasangarriaren aldeko apustua egin gura du PP alderdiak

► INGURUMENA

Ingurumenari dagokion politika oso garrantzitsua dela dio PP alderdiak; ingurumenari minik eman barik garatu behar ei du gizarteak. Hortaz, garapen jasangarriaren aldeko apustua egin gura du PPK.

► KULTURA

Kultura herritarren interes eta beharren arabera kudeatuko du eskumako alderdiak. Herriko elkarten lana bultzatu gura du eta artista gazteei aukerak eman gura dizkie.

► LANA

Lana sortzeko ahalegin berezia egiteko asmoa azaldu du PPK; batez ere, prestakuntza gutxi duten gazteek, emakumeek, gutxitu fisikoek eta 45 urtetik gorakoek lana aurki dezaten egingo du ahalegina.

► BASERRIA

Baserritarren bizi baldintzak hobetu eta nekazari bizimodua modernizatu gura du PPK.



ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEA

'Denok abiadura baten' lelopean, bi esparru nagusi landuko ditu EEEK

► OBRA ETA ZERBITZUAK


Elizate eta basoetako bideak konpondu eta txukundu gura ditu Elizateen Elkarteak. Elizateetan auzo-etxeak abian jarri. GOITB eta horrekin batera beste telebista guztiak, behingoz, auzo guztietara eraman. Banda zabaleko komunikazio sarea auzoetara helarazi. Auzo batzuetan hildako ei lur emateko arazoa oraindik behar moduan konpondu barik dagoenez, irtenbidea eman. Alderdikeria barik Udaleko planen jarraipena egin: bidegorriak eta Aizkorriko parke naturala, besteak beste. Laster egiten hasiko diren azpiegiturako lan handiak -autobidea eta abiadura handiko tren- zertan diren jakiteko batzordea osatu.

► BESTE LAN ARLO BATZUK

Baserrirako inguruko gaiekin lotutako gorabeherei erantzuten dien teknikari baten beharra ikusten du Elizateen Elkarteak. Zertarako? Dirulaguntzandako eskabideak bideratu eta deklarazioak, baimenak eta elizateetako lanen jarraipena egiteko, besteak beste.

M25 / GATZAGAKO ETORKIZUNA AZTERGAI

Lehenengo aldiz aurkeztu da herritarrez osatua ez dagoen alderdi bat



INDEPENDENTEAK

Eugenio Otsoa

ARRASATE / 51 URTE
KOOPERATIBAKO LANGILEA POLONIAN

Eugenio Otsoa arrasatearrak aspaldi hartu zuen bizileku Gatzaga. 15 urtez, lanak Poloniara eraman zuen arte, izan da bertako alkate. Eta oraingoan ere lanerako gogoz dator. Polonian ez dago euskal hauteskundeen berririk.

Zerk bultzatuta aurkeztu duzue berriro ere zeure burua datozen hauteskundeetara?

Herri honi erantzun bat eman beharra dagoelako. Gatzagak abian daukan garapen proiektua bultzatu beharra dago, ezin dugu eta azkeneko urteotan egindakoa bertan behera utzi. Bestalde, gurean ere, beste leku askotan moduan, jendea falta zen hau guztia bultzatzeko; hortaz, hori dela eta, taldetxo bat osatu eta aurkeztea erabaki genuen.

Zelako taldea osatu duzue?

Zabala. Ni neu izan ezik beste laurak berriak dira, eta horrek asmo eta ekintza berriak ekarriko ditu.

Zer deritzozu PP alderdia aurkezteari? Zer ekarriko dio horrek Gatzagari?

Bozkatzeko orduan esperientzia berri bat izatea bakarrik espero dut, beste inolako eraginik izango ez duena.

Eta zer deritzozu AuB eta herri plataformak legez kanporatzeari?

Giza eskubideen kontrako eraso hutsa da, inongo zalantza barik. Euskal Herrian sumatzen den askatasunik eza Gatzagan ere nabarrituko da.


Alkate izateko aukera asko ei dituzu, baina urte eta erdiz Polonian jarraituko duzu. Zelan beteko duzue zure eginbeharrekin?

Alkate lanetan tarte horretan Joserra Pérez ibiliko da, eta nik, orain arte moduan, zinegotzi lanetan ahal dudana guztia emango dut hemendik, Poloniatik.

Datozen lau urteotarako helburu nagusiak?

Besteak beste, nekazaritza guneko garapenari bultzada eman eta basoak behar moduan kudeatu; abian dauden ekintza ekonomikoak zaindu, eta zerbitzuak hobetu, ea oraingoan autobusa izatea lortzen dugun.

“Ni neu izan ezik beste laurak berriak dira, eta horrek asmo eta ekintza berriak ekarriko ditu”



PP

Manuela Feijóo

GALIZIA /
59 URTE

Manuela Feijóo galiziarra da beste lau lagunekin batera Gatzagako Udalerako bere burua aurkeztu duena. PP alderdian, berriz, ez digute jakin esaten Feijóoren lanbidea zein den eta esperientzia politikorik duen edo ez.

Lehenengoa aldia da herritarrez osatuta ez dagoen alderdi bat Gatzagan aurkezten dela. Zergatik aurkeztu zarete?

PPk askatasuna eraman gura du Gipuzkoako herri guztietara. Horrek bultzatuta etorri gara Gatzagara ere.

Ze programa dakarzue Gatzagarako?

Herritarren zerbitzura egotea da gure alderdiaren helburu nagusia. Udaletik herritarrek dituzten arazoak defen-

datu eta herria aurrera bultzatzeko eskuan ditugun medio guztiak jarriko ditugu.

AuB eta herri plataformak legez kanporatu dituzte. Demokrazian eta zuzenbide estatuan horrek badu lekurik?

Bai. Eskertzekoa da justiziak hartu duen erabakia; demokraziari adarra jo diotenei bidea moztu zaie azkenean. Hauteskunde hauetan, lehenengo aldiz, ETAk eta haren lagunek ez dute parte hartzerik izango; demokraziaren izenean erakundeei adarrik jotzeko aukerarik ez dute izango.


Udal hauteskundeetan herriaren errealitatea ezagutzea ez da, zure iritziz, beharrezkoa?

Garrantzitsua bada ere, ez da ezinbestekoa. Euskal Herriak bizi duen egoeratik, nire moduan, kanpokoak diren alderdikideek ere Euskal Herriko hainbat udaletan oso emaitza onak lortu dituzte. Hortaz, lanerako gogoa eta herriaren alde egiteko ilusioa da eduki beharrekoa.

Zuk zeuk zer berri eta zer onik ekarriko diozu Gatzagako herritarrei?

Askatasunaren aldeko konpromisoa dakart; herritar guztiendako askatasuna. Horrez gainera, herritarrei erantzuna emango diegu eta herriaren alde ilusioz lan egingo dugu.

“Herriaren errealitatea ezagutzea garrantzitsua bada ere, lanerako gogoa izatea da garrantzitsua”



FAGOR
Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.
Gastañadul auzoa 42
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!


Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

sustatu.com

interneteko profesional euskaldunendako albistegia

<http://www.sustatu.com>



DERMAJET

ETORRI ETA INFORMATU
KONPROMISO BARIK

zelulitisarekin bukatzeko teknika berri eta ikusgarria

- Zelulitisa eta laranja-azala desagerrarazi
- Gorputz-bolumena txikitu
- Zirkulazioa hobetu
- Larruazalaren trinkotasuna eta tonua hobetu
- Zahartzearen kontrako efektua
- Ildasken itxura hobetu



Gemes
edertze aretoa

Durana 40 ARETXABALETA
943 79 99 18



Orain Eskoriatza.

Juan Carlos Bengoa.
Eskoriatzako Alkatezterako Hautagaia.



Bozkatu eraginkor.



Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida

Zure etxearen osasun onerako



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA
“R.E.L.E.”
Gotzon Beitia Lazkano

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65
Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio
- Atezain automatikoak
- eta bideo salmenta
- Antena kolektiboak
- eta konponketa
- Informatika
- Instalazio elektrikoak

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

AIDE GAS S.L.

Loramendi 8, Aretxabaleta.
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

**Gasa • Berogailuak
Bainuak • Iturgintza**

PINTURAS
ESKORIATZA



- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ekz. ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769

Jon Axpe Oyanguren



OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

Iturgintza •
Gasa •
Berogailuak •
Peetrolio-produktuak •
limatrazioa •

L. GONZALEZ
PINTURAK
Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

TXOMIN
igeltserotza
ARETXABALETA

ERREKABARREN 20
607 739 835 / 943 79 63 94



URKO
MANTENIMIENTO, S.L.

Instalazioen mantenuendu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

Pintura eta dekorazioa



Gimbert

San Migel 13, beheka C
ARETXABALETA
609 143 119

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA



MUSAKOLA
Pinturak

Durana 27, 3. solairua
ARETXABALETA
Tel. 943 77 08 16 / 635 72 31 50

J.J. ITURGINTZA
IRURE



URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE 15
ARETXABALETA
943 793 187